



DONOSTIAKO UDALA. BAKEAREN KULTURARAKO GUNEA.



AIETEKO BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

**DONOSTIAKO
UDALA
BAKEAREN,
BIZIKIDETZAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ALDEKO
KONPROMISO
ETIKO, HERRITAR
ETA POLITIKOA**



**UNEAN UNEKO
EKIMENETATIK
“BAKEAREN ETA GIZA
ESKUBIDEEN ETXERA”**

Donostiako Udalak giza eskubideen alde egin duen bidearen adierazgarri nagusia Aieteko Jauregian, Francisco Franco diktadorearen udako bizileku ohian, sortutako Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea da.

1980ko hamarkadan Donostiako Udala giza eskubideen, elkartasunaren eta nazioarteko kooperazioaren alde lan egiten hasi zenetik, aldi guztietan konpromiso eta helburu komuna nabarmendu da: errespetuan, justizian eta askatasunean oinarrituta, bakean bizitzeko eta elkar bizitzeko eskubidea Udal osoaren jardueraren ardatza eta herritarren arteko harreman markoa eraikitzeko oinarria izan dadila.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ahalegin engaiatu eta partekatuaren emaitza da. Terrorismoaren oinazea, askatasun mugatua, fanatismoa eta intolerantzia jasan dituen eta oraindik ere jasaten dituen hiri batek bakearen alde eta giza eskubideen errespetuaren alde egindako apustu politiko eta etikoaren emaitza.



5

HASTAPENAK.
1980KO
HAMARKADA

7

1990EKO
HAMARKADA



2000KO
HAMARKADA.
“DONOSTIA,
BAKEAREN
KULTURARAKO
GUNEA”
PROGRAMA

41

2010EKO
HAMARKADA.
BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA.
DONOSTIA,
2016KO
EUROPAKO
KULTUR
HIRIBURUA
IZATEKO
HAUTAGAIA



**HASTAPENAK.
1980KO
HAMARKADA**



HASTAPENAK. 1980KO HAMARKADA



1980ko hamarkadaren amaieran, giza eskubideen eta kooperazioaren esparruan Udalak burutzen zituen ekimenak unean uneko ekintzak ziren. ETaren terrorismoak giro sozial eta politiko nahasien eragiten zuen eta oraindik ere sortzen duen arazo nagusietakoari erantzuteko asmo oneko ekimenak ziren, baina ez ziren nahikoak. Horrez gain, beste herrialde eta errealtate batzuekiko elkartasuna eta kooperazioa zein herritar guztiak balioetan hezteko eta sentiberatzeko apustua ez ziren baztertu.

Giza eskubideei eta balio hezkuntzari buruz informazioa biltzeko, trebatzeko, hezteko, sentiberatzeko, ikertzeko eta sustatzeko alderdiak diziplinartekotasunez eta batera jasotzen zituen udal plan orokorrik ez zegoen. Udalak eta hiriak bazuten, ordea, hurbileko nahiz urruneko mundura zabaltzeko eta giza eskubideen alde ahal zen indar, ilusio eta lan guztia emateko borondatea eta eraspenna.

Hamarkada horretan, ekimenak nagusiki esparru hauetan burutu ziren:

Kooperazioa, nazioarteko elkartasuna eta garapenerako hezkuntza eta kooperazioa.

- **1988an Bojadorreko Dairarekin senidetzea.** Tindoufeko (Aljeria) kanpamenduetan errefuxiatutako saharar herri honi Udalaren baldintzarik gabeko babesa ekarri zion eta udan haur sahararrak hartzeko programa sustatzearen bidez (1986tik gaur arte urtero egiten da), kaltetuentzako laguntzaren bidez, garapenerako kooperazio eta hezkuntza proiektuen bidez eta beken bidez gauzatu zen, besteak beste.
- **Garapenerako Kooperazio** ekimenak, bertako GKEekin elkarlanean, Hegoaldeko herrialde txiroenetako herrien garapen politiko, sozial eta ekonomikoa bultzatzeko.

Terrorismoaren biktimak babesteko eta laguntzeko ekimenen hastapenak.

Hiriko gutxiengo etnikoen (ijitoak) nahiz joera eta identitate sexualari dagokionez gutxiengoa direnen babesa eta horiekiko elkartasuna.





**1990EKO
HAMARKADA**

1990EKO HAMARKADA

1990eko hamarkadan, unean uneko ekimenak Udaleko “agenda” politiko eta teknikoan sendotuz joan ziren, eta gero eta gehiago indartu eta nabarmendu ziren.

Kontzientzia hartzea areagotu zen eta erabaki politiko garrantzitsuak hartu ziren. Hauek dira burututako jarduera batzuk:

- **Udaleko Kooperazio eta Tolerantzia Arloa eratu zen.**
- **Giza Eskubideen Batzorde Berezia sortu zen.** Udal talde politiko guztietako ordezkariak sortu zuten. Giza eskubideen eta tolerantzia nahiz bakean bizitzeko printzipioen aldeko udal politika sustatzea su xede.
- **Donostiak Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearekin (AICE) bat egin zuen,** eta Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarearen (RECE) Balio Hezkuntzari buruzko **gaikako sarean gogotsu parte hartu zuen.**
- **“Donostia Entremundos, San Sebastián Munduen Artean”** programa sortu zen. Oraindik ere martxan dagoen programa honek kulturartekotasuna, elkartasuna, errespetua, justizia eta bakea sustatzea du xede, eta horretarako trukea eta elkarrizketa bultzatzen duten eta errealitate anitzak ezagutzea erraztuko duten eztabaida foroak eta topaguneak eratzen ditu.
- **Gorazde** (Bosnia-Herzegovina) hiriarekin lehentasunezko elkarlan akordioa.





**2000KO
HAMARKADA.
“DONOSTIA, BAKEAREN
KULTURARAKO GUNEA”
PROGRAMA**

Bakearen kulturen eta giza balioetan oinarritzen den eta intrantsigentzia nahiz bazterketa sozial eta politikoaren aurka egin duen bizikidetzat markoa herritar guztien artean eraikitzeko oinarriak giza eskubideak, balio hezkuntza, elkartasuna eta terrorismoaren biktimen onarpena izan daitezen eskura dituen bitarteko guztiak biltzeko erabaki hartuta ekin zion Donostiako Udalak mende berriari.

Hamarkada horretan, giza eskubideen esparruan Udalaren ekintzak bideratuko zituen ardatz eta erronka nagusiak diseinatu ziren.

- **Gazteria, Hezkuntza, Kooperazio, Giza Eskubide eta Berdintasun Zuzendaritza sortu zen.**
- **Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimen Udal Foroa sortu zen.** Hiriko terrorismoaren biktimek osatu zuten. Foro honen helburua da biktimek jardueren eta programen diseinuan eta garapenean duten protagonismoa indartzea, euskal gizartearen duten rola onartzea eta laguntza morala eskaintzea.
- Udal Gobernuak Batzarrek **“Donostia, Bakearen Kulturarako Gunea”** programa onartu zuen.
- “Oroimenaren Lorategia” proiekturako nazioarteko lehiaketa, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimak oroitzeko, onartzeko eta horiekiko elkartasuna adierazteko espazioa eratzeke xedez.
- **Aieteko Jauregiko Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen diseinu parte hartzailea.** Bakearen Etxea sortzeko proiektua parte hartze prozesuaren emaitza da. Prozesu horretan, giza eskubideen aldeko lanari engeaiatutako hainbat udal taldek, entitatek, erakundeak eta elkarteak, unibertsitateak eta, oro har, herritarrek egin dituzte ekarpenak.

“DONOSTIA, BAKEAREN KULTURARAKO GUNEA” PROGRAMA



TESTUINGURUA

Donostia, Euskal Herriko beste hainbat hiri eta herri bezala, urtetan albistegietako gaia izan da bertan terrorismo, indarkeria eta intolerantzia ekintza justifika ezinak izan direlako. Horrek elkarrekin bake, askatasun eta aniztasun giroan bizitzea eta hiri hau giza eskalan garatzea oztopatu du.

Baina Donostia “Hiri Hezitzailea” da, hiria bera lehen mailako eragile hezitzaileztat dauka, pertsonen bizitzeko eskubidea eta duintasuna funtsezko giza eskubide gisa lehenesten ditu eta, beraz, ezin zuen etsi eta munduaren aurrean zentzu gabeko indarkeriaren eta fanatismoaren biktima ezgai gisa agertzea onartu.

Alderantziz. Udalak Donostia giza eskubideen aldeko lanean eredugarri izatea nahi du. Donostia bakearen kulturarako benetako gune bihurtu nahi du eta guztien artean hiri anitza eraikitzea du xede, bizitza errespetatuko den hiria eta aniztasunari eta pluraltasunari esker aberastuko dena.

INDARKERIAREN KULTURATIK BAKEAREN KULTURARA

“DONOSTIA, BAKEAREN KULTURARAKO GUNEA”

“Bakearen Kulturarako Gunea” politikei eta ekimenei modu integralean, zeharka, guztien parte hartzea bilatuta eta gizalegez ekiten dien proiektua da. Politika eta ekimen horiek helburu komuna dute: udal egituraren edozein erabaki, zerbitzu edo ekintza bizikidetzan hezteko eta bizikidetzatza berregiteko erronkan aurrerapausoa izatea.

“Gunea” zabalik dago hausnarketa eta eztabaidarako, ideia berriak hartzeko prest dago, Bakearen Kulturaren aldeko erakundeen eta taldeen arteko elkarlana bultzatzen du, eta, hartarako, hainbat gizarte, kultura edo hezkuntza esparrutan jarduerak eta programak sustatzen ditu.

Izan ere, giza eskubideak ezinbestean, horizontalki eta sare egitura baten barruan, pertsona guztien parte hartzearen eta konpromisoaren bidez, politika publiko guztietan eragin behar duen inspirazio iturria dira.

“DONOSTIA, BAKEAREN KULTURARAKO GUNEA”

HELBURUAK

- Herritarrei gizarte askeagoa, anitzagoa, gizalegezkoagoa eta giza eskubideekin begirunetsuagoa eraikitzearen beharraz kontzientzia harraraztea.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen onarpena eta horiekiko elkartasuna ekintzen bidez laguntzea eta sustatzea.
- Bakerako eta giza eskubideak errespetatzeko hezteko eta prestatzea, gure harremanetan giza dimentsioa indartuta, eta bizikidetzatza berregitea.
- Balio hezitzaile gisa hiriek duten zeregina sustatzea eta zabaltzea.
- Bakearen kulturaren aldeko erakundeekin eta taldeekin elkarlana sustatzea, hainbat gizarte eta kultura esparrutan ekimenak bultzatuta.

“DONOSTIA, BAKEAREN KULTURARAKO GUNEA”

JARDUNBIDEAREN ARDATZAK

Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei laguntza eta elkartasuna.

Oroimenaren lorategia.

Giza eskubideetan eta balio hezkuntzan trebatzea eta sentiberatzea.

Giza Eskubideen Zinemaldia.

Bakearen eta Giza Eskubideen Alde lan egiten duten gizarte talde eta mugimenduei laguntza.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea.

TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA



Urte askoan Donostia albistegietako gaia izan da ekintza terrorista justifika ezinak bertan gertatu direlako. Soilik gure hirian, atentatu terroristen ondorioz, 100 pertsona baino gehiago hil dira, 50etik gora izan dira zauri larriak izan dituztenak eta herritar askok hiria utzi behar izan dute edo terrorismoaren mehatxupearan bizi dira.

Testuinguru horretan, fanatismoaren inposaketak eta existitzen den aniztasuna ez onartzeak bizikidetza oztopatu dute.

Horregatik Europako Batzordeak sustatzen duen terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen Onarpen, Laguntza eta Elkartasun programa Udalaren jardunbidearen ardatz nagusietakoa da.

TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Hauek dira programa horren helburu zehatzetako batzuk:

- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimekiko herritarren elkartasuna ekintzen bidez sustatzea.
- Euskal gizartearen berregite morala eta terrorismo modu orori zilegitasuna kentzea bultzatzea.
- Terrorismoaren biktima guztiei eman beharreko arreta, ordaina eta laguntza dinamizatzea.
- Bakearen eta biktimen babesaren alde engaiatutako gizarte erakundeak indartzen laguntzea.
- Nazioartean, gatazkak konpontzeko eta aurreikusteko tresna baketsu gisa bitartekaritza bultzatzea.
- Herritarrak Bakearen Kulturaren eta giza eskubideen alde heztea, prestatzea, aholku ematea eta sentiberatzea.

Helburuak



TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Terrorismoaren biktimei arreta eta laguntza



Hiriko biktimek osatutako Terrorismoaren Biktimen Udal Foroaren dinamizazio plana, Bake hezkuntza jardueren eta programen diseinuan eta garapenean protagonismoa handiagoa izan dezaten.

Hiriko biktimen datu basea sortzea.

Beste hiri batzuetako biktimen erakundeekin edo foroekin topaketak antolatzea, beren lekukotasuna ezagutarazteko, emozioak eta esperientziak trukatzeko eta abar.

Hiriko kultura, gizarte edo kirol ekitaldi nagusietan biktimei leku ematea.

Hiriko kontsulta eta erabaki plataformetan zein foroetan parte hartzea (herritarren foroak, 2016ko Europako Kultur Hiriburua Izateko Hautagaitza, Plan Estrategikoa, Aieteko Jauregian Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea sortzea...)





TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Adierazpen instituzionalak

Osoko Bilkuraren akordioari esker, Hiriko **Urrezko Domina** terrorismoaren eta indarkeriaren biktima guztiei eman zitzaizen, haien oroimenez eta elkartasuna zein onarpena adierazteko.

Herritarren adierazpena, demokraziaren, askatasunaren eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzearen alde.

Udalaren adierazpena terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenez parke bat eraikitzeko (**Oroimenaren Lorategia**).

Udal akordioa giza eskubideen, aniztasunaren, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Udal adierazpena terrorismoaren biktimen eta aniztasunean bizitzearen alde.

Azaroaren 10^a, Terrorismoaren Biktimen Oroimen Egunari lotutako Adierazpen Instituzionala.



TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Ekitaldiak

Elkarretaratze isila, kandelak piztuta, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenez.

“Argi izpia oroitzapenerako. Deiadarra bakerako” lelopean, 2003tik 2009ra, urtero burutu zen abenduaren 23an, biktimen omenezko “Recuerdo-Oroimena” monolitoaren parean.

“Terrorismoaren biktimen omenezko Europako Eguna”.

2005etik aurrera, urtero, martxoaren 11n egiten den ekitaldia.





TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Ekitaldiak

Donostia hiriak Madrilgo Atocha Geltokiko M-11ko biktimei egin zien omenaldia.

Giza Eskubideen III. Zinemaldiaren inaugurazioa: biktimei omenaldia, "Omag" filmaren emanaldia eta IRaren atentatu bateko biktima baten gurasoen parte hartzea.

M-11 zela eta Madrilen antolatutako ekitaldietan parte hartu zuen Biktimen Foroaren eta Udalaren ordezkaritzak.

Elkarretaratzea eta lore eskaintza "Oroimena-Memoria" monolitoaren parean, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunean, martxoaren 11n.

"Terrorismoaren Biktimen Oroimenaren Eguna", Eusko Jaurlaritzak 2010eko azaroaren 10ean finkatua.



TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Memorialak –
oroimenerako gunea



“Oroimena-Recuerdo”
monolitoa Donostiako
Udaletxearen parean
(2007)



Ernest Lluch Kultur Etxea
Anoeta estadioan (2001)

TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Aipamenak, Oroimena eta Ohorezko Saria


Hiriko Urrezko Domina jarduera publikoen ari ziren hiriko biktimei (hiriko ohorezko sari nagusia).

Dominak bereziak terrorismoaren biktimei eta senitartekoei.

Plaka oroigarriak hildako zinegotzi donostiarren (Gregorio Ordóñez, Tomás Alba), Fernando Múgica Herzogen eta udal funtzionarioen (Alfonso Morcillo, Miguel Garcarena eta Manuel Perioné) omenez.

Hiriko kale eta eraikinak terrorismoaren biktimen omenez izendatu dira: Gregorio Ordóñez kalea, Fernando Mugica kalea eta Ernest Lluch Kultur Etxea.





TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Musika

Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko kontzertua. Giza Eskubideen Nazioarteko Egunaren karira, Izadi taldeak Pleno Aretoan eman zuen kontzertua.

Bob Dylanen kontzertua bakearen alde, Zurriolako hondartzan.






TERRORISMOAREN ETA INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA ETA ELKARTASUNA

Oroimena

II. Errepublikaren aldeko
errepresaliatuen omenezko
plaka oroigarria (2005).



OROIMENAREN LORATEGIA

Biktimei eskainitako
gunea

Oroimenaren Lorategia,
gerren, indarkeriaren eta
terrorismoaren biktimen
oroitzapenetan eratutako
gunea.

Bakearen eta giza
eskubideen aldeko
lekukotasuna.

Biktimei eskainitako 34.376
metro koadro. Etengabeko
loraldi zuriak bakearen
lengoaia Dakar gogora.



International Association of
Educating Cities
Association Internationale des
Villes Éducatrices
Asociación Internacional de
Ciudades Educadoras
Associació Internacional de
Ciutats Educadores



GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Herritarren artean, bereziki haurren eta gazteen artean gazteak balioei, giza eskubideei eta Bakearen Kulturari buruzko hezkuntza eta sentiberatzea sustatzea eta zabaltzea funtsezkoa da bizikidetzako marko “gizatiarragoa” eraikitzeko.

Horretarako, Donostiako Udalak gainerako hezkuntza eragileekin batera (ikastetxeak, unibertsitateak, familiak, komunikabideak, gizarte erakundeak) lan egiten du jarduerak diseinatzeko eta gauzatzeko. Jarduera horietan hainbat euskarri eta lengoia baliatzen dira (zinema, musika, gida didaktikoak, antzerkia, erakusketak, solasaldiak, hitzaldiak, ipuin kontalariak, argitalpenak) eta ezaugarri nagusi bera dute: giza eskubideen aldeko kontzientzia piztea.

“Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ipuinak eta Margolanak”.

Ikastetxeetako ikasleentzako eta 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako lehiaketa. Ipuinen eta margolanen bidez, bakeari, errespetuari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruz gogoeta egiten dute. Lanak argitalpen batean erakutsi eta biltzen dira. 2004. Urteik, urtero burutu da. Azken lehiaketan 2.600 ikaslek hartu zuten parte. Eusko Jaurlaritzaren laguntza du.

Giza Eskubideen Zinemaldian, apirilean, ikastetxeetako ikasleentzako **goizeko saio** bereziak egiten dira. 2.000 ikasle inguruk parte hartzen dute.

“Zinema eta Balio Hezkuntza lantzeko Gida Didaktikoa”. Giza Eskubideen Zinemaldiari lotuta, material didaktiko berritzailea prestatu du, elkarrizketaren eta zinema lengoaiaren interpretazioaren bidez, filmek adierazten dituzten giza eskubideei buruzko mezuak aztertzeko. Eusko Jaurlaritzaren laguntza du.

Komikia ardatz duten **lantegi pedagogiko eta artistikoak**, bakeari, bizikidetzari, elkartasunari eta terrorismoaren zein indarkeriaren biktimei buruz gogoeta egiteko. Hiriko hainbat ikastetxek parte hartzen dute eta Fernando Buesa Fundazioarekin batera antolatzen da.

“Bakearen, errespetuaren eta mestizajearen aldeko lorategi galkorrak”. Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenezko Oroimenaren Lorategiaren esanahiari eta garrantziari buruzko eta, oro har, giza balioei eta eskubideei buruzko Informazio, gogoeta eta sentiberatze lantegiak (2006, 2007 eta 2008). Lantegi horietan egindako arte instalazioak Zurriolako hondartzan eta Alderdi Ederren, Udaletxe parean, ipini zituzten ikusgai. Uliako Naturtxokoan txikiak **“Bakearen Sareak”** egin zituzten, lorategion osagarri.

“Hautzaroaren Egun Unibertsala” eta “Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna”. Jolas jarduerak eta giza eskubideen aldeko informazioa eta sentiberatzea bateratzea dute xede. Ipuin kontalariak, lantegiak, antzerkia, musika, argitalpenak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, erakusketak eta abar, Unicef, Avaim (Tratu txarrak hartutako haurren laguntzarako euskal elkarte) eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, besteak beste.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

**Haur eta gazteentzako
jarduera bereziak**



GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Haur eta gazteentzako
jarduera bereziak



Hiriko Kultur Etxeetako Haurtxokoen eta Gaztelekuen jarduerak. Ekipamendu horiek, giza balioetan oinarrituta, esperientziak eta sentipenak partekatzeko eta trukatzeko bizikidetza gune gisa sortu ziren.

“**Bakea Irudikatuz**”. Material didaktiko eta jendarteratzailea, irakasleentzako koaderno batek osatua: Koadernoak euskaraz eta gaztelaniaz dago, eta gaiak proposatzeko, elkarriketa sustatzeko nahiz Giza Eskubideen ezagueran, esanahian eta babesean sakontzeko tresna da. 2005. urtea bitartean.

Teatro “Sokrates”. Hezkuntza zentroei zuzendua. Giza Eskubideen Arloa dinamizatzailerak, ikasleek antzerki emanaldiak egiten dituzte giza eskubideetan sentiberatzeko.

“**Zinema hezkuntza**”, Irudi Biziak elkartearen laguntzaz. Balioen eta giza eskubideei buruzko film emanaldiak, Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduak. 1999. urtetik.



GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

**Ikastaroak, mintegiak eta
bekak**

Bakerako eta Gatazkak Konpontzeko Heziketari Buruzko Topaketak. (2005, 2006, 2007 eta 2008). Bakearen kulturaren adituek, biktimen erakundeek eta biktima partikularrek parte hartzen dute.

“Giza Eskubideei buruzko Ikastaroak”. Donostiako Udalak babesten eta sustatzen ditu eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Nazioarteko Zuzenbide Sailak, Harreman Institutuzional Sailak eta Zuzenbidearen eta Institutuzioen Historia Sailak antolatzen eta ematen dituzte. 2010-11 ikasturtean 14 urte beteko ditu. Giza eskubideen babesaren inguruko arazoak aztertzea eta ikasleei giza eskubideei buruzko prestakuntza berezia eskaintzea du helburu.

René Cassin Giza Eskubideen Nazioarteko Institutuaren Urteko Hezkuntza Saiorako Bekak (Estrasburgon), EHUKo Giza Eskubideen Ikastaroko ikasleentzat.

Balioetan Hezteko Estatuko I. Foroa Donostian: Bakearen Kulturaren aldeko konpromisoa duten hiriak. 2003.

"Hiria, Giza Eskubideak eta Bakea" mintegia, Unesco Etxeak eta Donostiako Udalak **EHUKo Udako Ikastaroen** barruan antolatua. Hiriek giza eskubideak eta bakea sustatzen duten zeregina aztertu zen.





GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Argitalpen propioak




- Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen **web orrialdea** (hobetzeko prozesuan). www.sansebastian.org/casadelapaz lau hizkuntzatan (euskara, gaztelera, ingelesa eta frantsesa).
- Giza Eskubideen Zinemaldiaren **web orrialdea**. www.cineyderechoshumanos.com
- Terrorismoaren biktimei buruzko **web orrialdea**. <http://www.victimasyderechoshumanossansebastian.org>.
- **Giza Eskubideen Ikastaroetako** argitalpenak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera eginak. Urtero, 2002tik.
- **Balioetan Hezteko Hezkuntza Agenda**.
- **“Oroimenaren Lorategia”** (2005). Udalak terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen omenezko gune hau sortzeko proiektuaren berri emateko argitaratu zuen.




- **"Oroimenaren Lorategiak"** Michel Quint. (2005). Liburua eskainia dago bakardadea eta maite dituztenen galera sentitzen dutenei eta beren izenak gure historiatic ezabatu ez daitezela eskatzen dutenei.
- **Bakerako eta Gatazkak Konpontzeko Heziketari Buruzko Topaketetako** tostenen argitalpena (2007, 2008, 2009).
- **Terrorismoaren biktimen, bakearen eta giza eskubideen aldeko erakundeen gida.** Europako ehundik gora erakunderi buruzko datuak biltzen ditu. Europan terrorismoaren aurka, biktimak babesteko eta herritarren artean bakearen kultura sustatzeko lan egiten duten gizarte erakundeen eta instituzioen arteko ezaguera eta elkarlana bultzatzea da gidaren helburu nagusia. 2007an argitaratua eta etengabe eguneratua.
- **Esperientziak eta praktika egokiak** trukatzeko erakundeen katalogoa (2008).
- **Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ipuinak eta Margolanak.** Giza Eskubideei buruz hurrek eta gazteek egindako ipuinen eta margolanen bilduma jasotzen duen argitalpena (urtero, 2005etik).
- **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala.** Hainbat edizio. Horietako bat, onarpenaren 60. urteurrenaren karira egindakoa, haur eta gazteentzako erraz irakurtzeko edizioa.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Argitalpen propioak





“Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna”. 2003tik aurrera, urtero, abenduaren 10ean, hainbat jarduera burutzen dira hirian, ikastetxeen, entitateen, instituzioen (Eusko Jaurlaritzaren), elkarten eta herritarren laguntzaz, eta herritarrak giza eskubideen alde lanean jarraitzeko beharraz sentiberatzeko xedez.

Hauetara dira **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna** ospatzeko burutzen diren **jarduera** nabarmenenak:

“**Cerca de tus ojos**” (Zure begietatik gertu) Elias Querejetaren dokumentalaren mundu mailako estreinaldia. Film honek 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik gaur arte munduan izan diren giza eskubideen urraketak errepasatzen ditu.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren onarpenaren 60. urteurrenaren ospakizuna. Hitzaldiak, zinema, kontzertuak, jarduerak ikastetxeetan, haurrentzako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren erraz irakurtzeko edizioa eta abar (2008). Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz.

Giza Eskubideei buruzko **Adierazpen Institutuzional** bat onartu zen. Giza Eskubideen Batzorde Berezia.

Hiriaren Mendeurrenaren Domina Juan Mari Bandres abokatuari, giza eskubideen aldeko ibilbideagatik eta konpromisoagatik, eta egindako lan politiko, profesional eta humanitarioagatik (2004).

“**Bakearen aldeko branka**” horma-irudia, herritarren hainbat talderen laguntzaz eta Ricardo Ugarte eskultorearen gidaritzapean.

“**Minutu bat sentitzeko**”. Hainbat gizarte talde eta esparrutako ehun bat herritarrek, pertsona ezagun nahiz anonimoek, minutu batez, giza eskubideei buruzko testu bat, poema bat, bertso bat, aipu bat... irakurri zuten, Udaletxeko Pleno Aretoan.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

**Nazioarteko Egunen eta
Egun Unibertsalen
ospakizuna**



“Hautzaroaren Egun Unibertsala” abenduaren 20an. Jolaserako eta hezteko hainbat jarduera, hurrek giza eskubideak babestu eta errespetatu behar direla ikas dezaten.

“Hiesaren aurkako Nazioarteko Eguna” abenduaren 1ean. Giza Eskubideen Arloak, Gehitu, Harri Beltza, Acasgi, Ehgam eta beste elkarte batzuekin batera, hainbat jarduera antolatzen dituzte Hiesari buruzko informazioa emateko eta sentiberatzeko, zein Hiesak eragindakoei elkartasuna adierazteko.

Udalak, biktimen omenez, lazo gorri forma duen memoriale jarri zuen Kalkutako Teresa plazan, 2006an.

“Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna” martxoaren 11n. Lore eskaintzak eta askotariko ekitaldiak indarkeria jasaten duten pertsonen alde. Urtero egiten da, Europako Batzordearen laguntzaz.

“Terrorismoaren Biktimen Oroimenaren Eguna”. Lehenengoz 2010eko azaroaren 10ean burutu zen, Eusko Jaurlaritzak hala ezarrita.



GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Nazioarteko Egunen eta
Egun Unibertsalen
ospakizuna



GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Erakusketak

Hainbat erakusketa programatu dira, hitzaldiek eta mahai-inguruek osatuta. Horien artean:

“En pie de foto. Ehun begirada samintasunetik. Terrorismoa, gizakien aurkako krimena”. Erakusketa grafiko-literarioa, “Miguel Angel Blanco” biktimen fundazioarekin eta Donostia Kulturarekin batera antolatua.

“Ernest Lluch, herri bat eraikitzeko ahalegina”, ETAk hildako politikari sozialistaren bizitza eta lana grafikoki laburbildua.

“Hitzaren eta irudiaren balioa”. Bakearen aldeko komikien erakusketa ibiltaria, Fernando Buesa Fundazioarekin eta Donostia Kulturarekin batera antolatua. Hiriko ikastetxeek arte lantegietan parte hartzen dute, komikien bidez bakeari eta giza eskubideei buruz gogoeta egiteko.





GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Erakusketak

“Errespeturako gunea”, J. M. Moraza
artistaren laguntzaz. Udaletxeko
Pleno Arteko instalazio eskultorikoa,
Donostiako Udaleko talde
politikoetako ordezkariak, herritarren
elkartek eta terrorismoaren biktimek
parte hartu zuten lantegietan
sortutako konposizioekin osatua.

“Hobitik ateratzen, duintasuna
berreskuratzen”. Oroimen historikoari
eta Gerra Zibilaren nahiz
diktaduraren biktimen oroimenari
buruzko erakusketa, Aranzadi
Zientzia Elkartearekin elkarlanean.
Giza Eskubideen Zinemaldiaren
barruan.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Erakusketak



“Gerrako haurrak”, “Denboraren taupadak”, “Bizitza minatuak”, Gervasio Sánchez. Argazki Sari Nazionala.

“Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ipuinak eta Margolanak” lehiaketako haur eta gazteen ipuinak eta margolanak.

“Bakearen, errespetuaren eta mestizajearen aldeko lorategi galkorrak”.

“Milurtekoaren ateak”, “Sin excusas” Elkartearekin batera.

“Giza eskubideak xakean”, 3-D afixak, Ceinpro diseinu zentroko ikasleek eginak.

“Brasil- Kabum Mix”. Brasilgo faveletako gazteen eta Donostiako Area diseinu grafiko zentroaren artean egindako afixak.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Erakusketak



“Tratu txarren arrastoa”, tratu txarrak jasan dituzten haurren marrazkiak, Tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako euskal elkartearekin elkarlanean (AVAIM).

“Birmania bakearen alde”

“Emakumea, deserria, edertasuna”, ACNUR elkartearekin elkarlanean.

“Tratu txarrik gabeko bizitzaren alde”, Gobernuko Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Ordezkaritzak eta Universidad de Alcalá Fundazioak ekoiztua.

“Gureak ere badira adingabe horiek”, SOS Arrazakeria elkartearekin elkarlanean.

“Hemen eta Orain”, Gipuzkoako prentsa grafikoko profesionalek egindako giza eskubideei buruzko argazkien erakusketa.

“Defendatzaileak”, Nazioarteko Amnistiarekin elkarlanean.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Bakearen aldeko kometak

500dik gora kometa
egiteko eta haizatzeko
lantegiak Zurriolako
hondartzan, bakea
aldarrikatzeko.





LGTB mugimenduari babesa
(Lesbianak, Gayak, Transexualak eta Bisexualak). Sentiberatze jarduerak: “Hitz egin dezagun homosexualitateaz” ikastetxeetan, Gay Harrotasunaren eguneko elkarretaratzea, beren jarduera garatzeko egoitzak uztea eta abar.

Hiriko **ijitoei babesa**. Gizarte eta kultura jarduerak “La Paquera de Jerez” lagunartean, Cante Flamenkoaren Lehiaketa eta abar.

GIZA ESKUBIDEETAN ETA BALIO HEZKUNTZAN TREBATZEA ETA SENTIBERATZEA

Identitatea eta
berdintasuna








GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Zinemaldi gaztea izan arren (2003an abiatu zen), **erreferente** bihurtu da kalitatezko zinema eta giza balio nahiz eskubideetan sentiberatzea bateratzen baititu.

Zinemaldia Giza Eskubideen Arloak eta Donostia Kulturak antolatzen dute, AECIDek (Garapenerako Espainiako Nazioarteko Lankidetzak Agentziak) eta Europako Batzordeak diruz lagunduta.

Munduko zinemaldi prestigiodunenak biltzen dituen **Human Rights Film Network** nazioarteko sarearen barruan dagoen estatuko Zinemaldi bakarra da.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Apirilean, astebetez, kontu handiz hautatutako **film luze eta labur** sorta ematen du Zinemaldiak, eta horietako batzuk mundu mailako estreinaldiak izaten dira. Emanaldiak osatzeko, Giza Eskubideetan adituek, elkarteetako naiz GKEetako ordezkariak, herritarrek nahiz hautatutako filmetako zuzendari eta aktoreek hainbat **solasaldi** eta eztabaidetan parte hartzen dute.

Zinema programazioa hainbat **jarduera paralelok** osatzen dute: giza eskubideei buruzko erakusketak, eskola-ikasleentzako zinema saio bereziak, dantza-ikuskizunak, liburuen aurkezpenak, antzerkia, kontzertuak eta abar.

Sariak: Giza Eskubideen Zinemaldiko antolakuntzaren Saria (Pilar Bardem, Elías Querejeta, José Luis Borau, Goran Paskaljevic), **gazte epaimahaiaren Saria** film labur onenari (150 gazte inguruk parte hartzen dute), **Publikoaren Saria** film luze onenari eta **Nazioarteko Amnistia Saria**.

Giza Eskubideen Zinemaldiaren webgunea.
www.cineyderechoshumanos.com





BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDE LAN EGITEN DUTEN TALDEEI ETA GIZARTE MUGIMENDUEI LAGUNTZA

Donostiako Udalak urtero **diru-laguntzak** ematen dizkie bakearen, giza eskubideen eta gutxiengoekiko errespetuaren alde lan egiten duten irabazteko asmorik gabeko elkarteei eta entitateei.

Udaleko **egoitzak uzten** dizkie giza eskubideen esparruan lan egiten duten elkarteei.

Bakea, elkartasuna eta desmilitarizazioa sustatzen duten bertako nahiz nazioarteko **kanpainetan parte hartzen** du.

Euskal Fondoaren (Lankidetzta Entitateen Euskal Elkartearen) **Garapen Lankidetzarako** programekin elkarlanean aritzen da.

EUSKAL

FONDOA



SAN SEBASTIAN
DONOSTIA 2016



**2010EKO HAMARKADA.
BAKEAREN ETA GIZA
ESKUBIDEEN ETXEA.
DONOSTIA, 2016KO
EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA IZATEKO
HAUTAGAIA**


Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen **Sortze Agiria** sinatu zen.

Aieteko “Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea” inauguratu zen eta bere bidea abiatu zuen.

Donostia ofizialki 2016ko **Europako Kultur Hiriburua** izateko Hautagai izendatu zuten, **“Elkarbizitzarako Kultura”** lelopean.

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA





Francisco Franco diktadorearen udako bizileku ohia Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea bihurtzeko egindako bidea ez da samurra izan. Azkenean, 2010eko uztailaren 19an egia bihurtutako proiektua, ametsa da, egun horretan zabaldu baitzizkien ateak herritar guztiei.

Hamabi urte joan dira bide horri ekin zitzaionetik, Donostiak giza eskubideetan eta herritarren arteko konkordian espezializatutako gunea izan dezan. Bide horrek, gainera, sinbolismo handia du eraikinaren helburu aldaketa dela medio.

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea ez da ezerezetik sortu. **Bide** politiko, tekniko eta herritarraren **emaitza** da, Donostiako Gobernuak eta Udal osoak burututako akordioen, eztabaiden, adierazpenen eta konpromisoen emaitza, baita estatuko zein nazioarteko ekimenetan, plataformetan eta sareetan parte hartzearen emaitza ere.

Egun, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea **Donostiako Udalari** eta **Sustapen nahiz Kultura Ministerioen (kulturari bideratutako %1ari dagokiona)** eta **Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesari eta laguntza ekonomikoari** esker dago martxan.

Ez gaude bakarrik. Gainera, Bakearen Etxeak hezkuntza zentroekin, udaleko beste sail batzuekin, gizarte-taldeekin, unibertsitateekin eta herritarren elkarteekin elkarlanean jardungo du, eta, estatuko zein nazioarteko sareekin bat eginda, bere lana munduan zabalduko du.

**ITZULBIDEA.
FRANCOREN UDAKO
BIZILEKUTIK
BAKE GUNERA**

**BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA**

Helburuei eta funtzioei dagokienez, hauxe izan nahi du Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak:

- **Hiria, salbuespenik gabe, errespetuz eta giza eskubideak ezarrita eraikitzea** ahalbidetuko duen espazioa.
- Herritarrek, bereziki gazteenak, Bakearen Kulturen kontzientziatzeko eta sentiberatzeko tresna.
- **Biktimen ordaintza eta adiskidetzea**, hau da, **herritarren arteko konkordia** bilatzea sustatuko duen tresna.
- Herritarrek bakearen kulturen eta, horrez gain, gorrotoa gainditzeko heziketa dituen proiektua, aldi luze batez terrorismoari leku eman izanaren **erantzukizuna kolektiboa dela onartuta**.
- Giza eskubideei buruzko informazioa, azterketa, elkartrukea, hausnarketa eta eztabaida, trebakuntza eta hezkuntza, ikerketa eta **esperimentazioa** lantzeko **erreferentziatzeko** gunea. Etxearen lan esparrua, **tokikoa, estatu mailakoa eta nazioartekoa** izango da.
- **Bakea eraikitzeko**, ekimenak artikulatzeko eta interpretatzeko nahiz **erakundeen eta gizarte mugimenduen ahaleginak** garatzeko bitartekoa.
- Bakearen kulturen alde, giza eskubideen alde, gutxiengoaren alde, gizarte eskubideen alde nahiz berdintasunaren alde lan egiten duten **beste nazioarteko gune batzuekin** elkarlanean aritzeko, trukeak izateko eta **sarean lan egiteko** aukera.
- **Terrorismoaren eta Indarkeriaren Biktimen Udal Foroak** bertan izango du topagunea, esperientziak trukatzeko eta biktima guztiengana hurbiltzeko espazio ireki eta ez-baztertzaila. Foroak proiektu hau garatzen lagunduko du.
- **Hiriak Bakearen Kulturekin eta Balio Hezkuntzarekin duen konpromisoari** buruzko nazioarteko erreferentziatzeko proiektua.
- Herriekiko **elkartasun** gunea, pertsonen arteko elkarriketa sustatzeko bokazioa duena.



HELBURUAK

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

LAN ARLOAK

Heziketa, Hezkuntza eta Ikerketa.
Gobernantza Demokratikoaren
Institutua.

Sentiberatzea eta Kontzientziatzea.

Oroimena eta Aitormena giza
eskubideak urratu zaizkien pertsona
guztiei.

Adiskidetzea eta Herritarren arteko
Konkordia. Gizartearen onbideratze
moral.

Informazioa eta aholkularitza.

Azterketa eta dokumentazioa.
Herritarren konkordian eta giza
eskubideetan espezializatutako
Dokumentazio Gunea eta Filmoteka.

Giza eskubideen, elkartasunaren eta
justiziaren arloan lan egiten duten gizarte
mugimenduen aitormena eta indartzea.

Zabalkundea: Argitalpenak.

KOKAPENA – HARREMANA ETA WEB ORRIALDEA

Aieteko Jauregia.
Aiete Pasealekua, 65
20009 Donostia.
Telefonoa: (00 34) 943 48 19 75
Faxa: 943 48 17 78
Helbide elektronikoa:
casadelapaz@donostia.org, bakearenetxea@donostia.org

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen web-orrialdea: www.sansebastian.org/casadelapaz
lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa).

Donostia munduari irekita dagoen hiria da, eta aukera berriak zabaltzeko, sinergiak baliatzeko, esperientziak trukatzeko, ikasteko nahiz erakusteko beharraren jakitun da.

Hala, giza eskubideen alde eta balio hezkuntzan aritzen diren nazioarteko hainbat saretan integratuta dago.

Hiria, besteak beste, **sare** hauetako kide da:

- Hirian Giza Eskubideak Babesteko Europako Gutuna sinatu duten Hirien Nazioarteko Sarea.
- Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartea. AICE
- Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarea. RECE
- Bake Hezitzaileen Nazioarteko Elkartea.
- Bakearen aldeko Alkateen Munduko Sarea.
- Kulturarteko Hirien Nazioarteko Sarea.
- Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko Hirien eta Diplomaziaren Sarea.
- Hiri eta Udal Gobernu Batuak (CGLU)
- Giza Eskubideen Zinemaldien Nazioarteko Sarea (Human Rights Film Network).

Horrez gain, Donostia:

- Euskal Fondoaren (Lankidetzeta Entitateen Euskal Elkartearen) egoitza eta kide da.
- Sahara Herriarekiko Elkartasun Erakundearen Estatuko Federazioaren Batzorde Iraunkorreko kide da. FEDISSAH.

BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA

SAREAK

Human
Rights
Film
Network



KOLABORATZAILEAK

Hauek dira Giza Eskubideen arloan Donostiako Udalarekin elkarlanean aritzen diren nazioarteko prestigioa duten GKE, entitate, unibertsitate eta institutueta batzuk:

- Giza Eskubideen Zinemaldiko Kolaboratzaileak: UNICEF, UNHCR/ACNUR, CEAR, Mexikoko Giza Eskubideen Akademia, Bake Hezitzaileen Nazioarteko Elkarte, Gipuzkoako GKEen Koordinakundea, Gehitu, Nazioarteko Amnistia, SOS Arrazakeria, Mexikoko UNAMeko UNESCOren Giza Eskubideen Katedra, Nanteseko Espainiar Zinema Jaialdia, Saharako Zinemaldia (FISAHARA).
- Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bakearen Kultura Fundazioa.
- Nanteseko Udala.
- Kataluniako Giza Eskubideen Institutua.
- Nurembergeko Giza Eskubideen Institutua.
- Estrasburgoko Giza Eskubideen Institutua.
- Tuzlako Bakearen Etxea (Bosnia-Herzegovina).
- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren Bulegoa.
- Terrorismoaren Biktimen Udal Foroa
- Gernikako Bakearen Museoa
- Gernika Gogoratzuz. Bakeaz, Baketik, Bakeola, Demagun, Covite, Lokarri, Gesto por la Paz.
- Euskal Fundoa
- Sahararekiko Elkartasun Erakundearen Estatuko Koordinakundea
- Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzorde Berezia
- Arartekoa



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA




INSTITUZIOEKIN ELKARLANEAN

- Europako Batzordea. Justizia, Askatasun eta Segurtasun Zuzendaritza
- AECID (Garapenerako Espainiako Nazioarteko Lankidetzeta Agentzia). Kanpo Arazoetako Ministerioa.
- Eusko Jaurlaritza. Justizia eta Administrazio Publiko Zuzendaritza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Foru Aldundia

Giza Eskubideen Arloak historikoki garatu dituen ekimenez eta programez gain, “Donostia Bakearen Kulturarako Gune” proiektuaren bidez, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak, besteak beste, proiektu hauek aurreikusten ditu:

- **“Herritarren arteko konkordia eta adiskidetzeta” Unescoren Katedra** sortzea.
- **Eragile hezitzaileentzako trebakuntzarako** mintegi iraunkorra eta **giza eskubideei buruzko gaien heziketa planak**.
- **Giza Eskubideei buruzko gaikuntza eta heziketa**.
- Hainbat instituzioren, entitateren eta terrorismoaren biktimen ordezkariak osatutako **Aholku Batzordea** eratzea.
- EHUrekin batera, **azterketa eta ikerketa bekak** ematea.
- **Giza Eskubideen Nazioarteko Diploma**, Eusko Jaurilaritzarekin, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren bidez, Hego Amerikako Henry Dunant Fundazioarekin eta Garapen Bidean elkartarekin batera.
- Giza Eskubideen beste gune batzuekin trukeak eta elkarlana.
- **Terrorismoaren Biktimen Foroaren tokiko egoitza**.
- Haurrentzako, gazteentzako eta, oro har, herritarrentzako **unitate didaktikoak**, bakearen kultura zabaltzeko.
- Jolas eta hezkuntza jarduerak **“Ipuinen Dorre”** berrian (ipuin kontalariak, lankidetzak jokoak, bideo emanaldiak, lantegiak eta abar).
- Euskal gizartea **adiskidetzeko** plana, bakearen aldeko erakundeekin batera.
- **“Hiriak eta bizikidetzak”** alkateen topaketa. Hiri anitzetako bizikidetzaren arazoa eta kulturaren funtzioa.
- **Kultura aniztasunari eta hiri kulturaztunari** buruzko sarrera plana.
- Hiri Kulturaztunaren Sarearen **nazioarteko biltzarra**.
- **Bakearen Nobel Saridunen** hitzaldiak, erakusketak eta topaketak.
- Donostia, **Babes Hiria**.
- **Milurtekoaren Helburuen** garapena.
- **Giza Eskubideetan espezializatutako dokumentazio zentroa eta filmoteka**.
- **Giza Eskubideen Zinemaldia**.
- **Oroimenaren Mapa**. Atentatu terroristak izan diren hiriko puntuak oroitzeko sortuko da aurki.
- **Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeko Oroimenaren Mapa**.
- **Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen omenezko eskultura** Aieteko Kultura Parkean.



**AURREIKUSITAKO
JARDUERAK**

**BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA**



Bakearen eta Giza Eskubideen Parkea kultura proiektu berritzaile baten arte da: **Aieteko Kultura Parkea – Bakearen Kulturarako Gunea**. Proiektuaren bateratze elementua giza eskubideak dira eta Aiete Kultur Etxearekin lotura estua du. Kultur Etxeko programazioa eta zerbitzuak ere (**Haurtxoko**, **Gazteleku**, liburutegia, ikastaroak, erakusketak eta abar) giza eskubideei lotuta daude.

Proiektua osatzeko **Ipuinen Dorrea** sortu da, haurrak giza eskubideen alde sentiberatzeko espazio “magikoa”, ateak 2010eko abenduan zabaldu zituen. **Topalekua** ere eratu da elkarre mugimenduarentzat.

Bakearen Etxeak eta Kultur Etxeak dituzten 3.660 metro koadroez gain, Aieteko Kultura Parkeak beste hainbat elementu ditu: **lorategiak, pasealekuak, hurrek jolasteko guneak, bonsaien pabilioia, kafetegia, jatetxea** eta abar. Hori guztia giza eskubideen zerbitzura dago. Halaber, elementu guztien emaitza **hausnarketarako, elkar ulertzeko, errespeturako eta gizalegerako espazio bakan eta aproposa** da.

**AIETEKO
KULTURA PARKEA**

**BAKEAREN
ETA GIZA
ESKUBIDEEN
ETXEA**

